

ZATIKETA

LHko 2.zikloko 2. maila

A. E. B.

2012ko irailean berrikusia

1.Justificazioa

2.Oinarrizko elementuak

2.1.Helburuak

2.2.Edukiak

- **2.2.1.Kontzeptuzkoak**
- **2.2.2.Prozedurazkoak**
- **2.2.3.Jarrerazkoak**

2.3.Konpetentziak

2.4.Ebaluazio-irizpideak

2.5.Metodologia

2.6.Taldekatzea

2.7.Denboralizazioa

2.8.Aniztasunaren trataera

2.9.Diziplinartekotasuna

2.10.Baliabideak

3.Ekintzak

4.Indartze-ariketak

5. Bibliografia

1. Justifikazioa

Unitate hau lantzerakoan, saiatuko gara (aldi-aldi), ikasleek egunero bizi dituzten egoera errealak aintzat hartzen. Bereziki erreparatuko diogu zatiketek eguneroko bizitzan duten garrantziari. Horretarako, zatiketak eta banaketak duten erlazioa azpimarratuko dugu, zatiketa banatzeko modua baita.

LHko 2. zikloko, 2. mailan ari gara, eta aurreko ikasturtean hasi ziren zatiketak lantzen. Aurten, gure helburua da ikasitakoa gogoratu ostean, eragiketa horren beharra ulertzea eta modu eta egoera egokietan erabiltzea.

2. Oinarrizko Elementuak

2.1 Helburuak

- Zatiketa eta biderketa aurkako eragiketak direla ulertu, eta zatiketa banatzearekin identifikatu.
- Eguneroko bizitzan, zatiketa erabil daitekeen egoerak identifikatu eta zerrendatu.
- Zatiketaren osagaiak identifikatu.
- Zatiketa zehatza eta osoa bereizi eta eragiketak egiten trebatu.
Zatiketa erabili.
- Buruzko kalkulurako estrategiak erabili.

2.2 Edukiak

2.2.1 Kontzeptuzkoak

- Zatiketaren osagaiak
- Zatiketa zehatza eta osoa
- Zatiketaren froga
- Erdia, herena eta laurdena.

2.2.2. Prozedurazkoak

- Zatiketa baten osagaiak identifikatzea.
- Zifra bateko edo biko zatitzaileak dituzten zatiketak kalkulatzeko.
- Zatiketa zehatzak eta osoak bereiztea.
- Froga aplikatuta, zatiketak zuzentzea
- Zatiketa batean osagai ezezaguna bilatzea.

2.2.3. Jarrerazkoak

- Zatiketaren osagaiak kokatzean arreta izatea.
- Problema ebazteko, zatiketak duen erabilgarritasunaz jabetzea.
- Zatiketaren froga aplikatzean, zorrozatasuna jartzea

2.3 Gaitasunak

Matematikarako gaitasuna

- Zenbakien erabilera desberdinez ohartu eta zenbait objektu eta egoera identifikatzeko zenbakizko kodeak erabili.
- Buruketak ebazteko, eragiketen erabilgarritasunaz ohartu.
- Zatikien osagaiak eta haien izenak ezagutu.
- Zatiketa batean lortu diren emaitzak eguneroko egoeratan aplikatu.
- Ezaguera eta abilezia matematikoak lortu.
- Pentsatzerakoan egoera matematikoak erabiltzeko interesa azaldu.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

- Hizkuntza arruntean, zenbakiak eta horiek duten komunikatzeko balioa kontuan hartu eta zenbakiek adierazten duten esanahia interpretatu.
- Eragiketa matematikoak ahoz deskribatu eta horiek burutzeko prozesuak arrazoitu.
- Hizkuntza arruntean, eta era normalizatu batean, eragiketa matematikoen terminologia erabili.
- Hizkuntza arruntean zatikien terminologia erabili.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturako gaitasuna

- Zenbakiak eguneroko egoeretan kantitateak adierazteko duten garrantziaz ohartu.
- Gelaz kanpoko egoeretan eragiketa matematikoak erabili.
- Eguneroko egoeretan zatiketek duten erabilgarritasunaz ohartu.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

- Zenbakiak erlazionatutako abileziak eskuratzeko aukerak eman.
- Kalkulagailuaren erabileran trebatzen hasi.
- Informazioa bilatzeko, Internet erabili.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

- Bizi garen gizartearen harremanak eta elementuak aztertzeo, zenbakien erabilgarritasuna baloratu.
- Besteekiko elkarlana garatu eta laguntza jarrerak jorratu, eragiketa matematikoak agertzen diren gatazka egoerak konpontzeko.
- Zatikiek zenbatzeko eta eguneroko egoerak konpontzeko duten erabilgarritasuna baloratu.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Grafikoek, kontzeptuak barneratzeko duten erabilgarritasunaz ohartu.
- Zenbait eragiketa matematikoren ikastaldian jarraitutako prozesua ahoz kontatu, autonomia errazten duten estrategiak landuz.
- Eskemak edota marrazkiak egin buruketa bat ebazteko.
- Emaitzak zehaztasunez adierazteko abilezia garatu.

- Zatikien kontzeptua barneratzeko, grafikoek duten erabilgarritasunaz ohartu.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

- Buruketak ebazterakoan, konfiantza eta ziurtasuna lortzeko, metodoa jarraitu.
- Egoera ezezagunei arrakastaz aurre egiteko, konfiantza garatu.
- Eragiketa matematikoak erabilia problemak ebazterakoan prozesua baikorra izan dadin, baliabideak kudeatu.
- Buruketak ebazteko aurretik plan bat egin, estrategiak bilatu eta erabakiak hartu.
- Ikasgai berrien aurrean jakin-mina adierazi.

2.4. Ebaluazio- adierazleak

2.4.1. Ea ondo erlazionatzen dituen zatiketa eta banaketa kontzeptuak.

2.4.2. Ea bereizten dituen zatiketa batean osagaiak. .

2.4.3. Ea ezberdintzen dituen zatiketa zehatzak eta osoak.

2.4.4. Ea egiaztatzen dakien zatiketaren emaitza, froga modu egokian erabiliz.

2.4.5. Ea ondo eta azkar kalkulaten dituen zatiketa errazak.

2.4.5. Ea burutzen dituen zatitzaileak bat edo bi zifra koak dituzten zatiketak.

2.4.6. Ea erlazionatzen duen adierazitako zatikia ($\frac{1}{2}$, $\frac{1}{3}$, $\frac{1}{4}$) dagokion zatiketarekin.

2.4.7 Ea ongi interpretatzen dituen, eta dagozkien egoerekin erlazionatzen dituen adierazpen aritmetikoak

2.4.8.Ea zatiketa ongi aplikatzen eta egiten dakien problemak ebazterakoan.

2.4.9.Ea modu egokian erabiltzen duen kalkulagailua.

2.4.10.Ea problemak ebazterakoan edota planteatzerakoan, ematen dituen urratsak adierazten dituen.

2.4.11.Ea ebazten eta planteatzen dituen eguneroko egoeretan oinarrituta, zatiketa algoritmoa duten buruketak.

2.4.12. Ea ondo interpretatzen duen informazioa, eta zati garrantzitsuena bereizteko gai den.

2.5. Metodologia

Lortu nahi den helburuetako bat da.ikasleek landutako gaiari buruzko estrategiak eta ezagutzak bereganatzea.

Guztiz garrantzitsua da ikasitako estrategiak egoera erraletan aplikatzen jakitea. Horregatik, saiatuko gara, eguneroko adibideetan oinarritzen. Matematikak egunerokotasunarekin duen erlazioa agertzeko ahaleginak egingo ditugu.

Ikasleen parte-hartzea bultzatuko dugu; galderak eta ariketak egingo dituzte, baita eurek planteatuko dituzten zenbait problema ere.

Aurreko ikasturtean zatiketarekin hasi ziren; beraz, abiapuntua aurretik ikasitakoa gogoratzea izango da.

✓ **Oinarri epistemologiko batzuk hartu behar ditugu kontuan:**

- Ezagutza une eta momento ezberdinetan garatzen da pertsona bakoitzarengan.

- Aurretik izan dituzten esperientziek eta ondoren izango dituztenek baldintzatuko dute ikasleen ezagutza.

✓ **Oinarri psikologiko batzuk ere hartu behar ditugu kontuan:**

- Ikaslearen garapen mailatik abiatu behar dugu.
- Ikasketa eraikitzailea eta esanguratsua balioetsi behar dugu.
- Era autonomoan lan egiteko oinarri sendoak ziurtatu behar dizkiogu ikasleari.

✓ **Arlo pedagogikoa ere aintzat hartzea**

- Jakin-mina eta motibazioa suspertu.
- Aurreiritziak aztertu.
- Ezaguera berriak barneratzeko jakin-mina suspertu.

2.6. Taldekatzea

Ekintza edo atazaren arabera talde osoa hartuko dugu, edo talde txikiak egingo ditugu.

2.7 Denboralizazioa

Azaroaren bigarren hamabostaldian.

2.8 Aniztasunaren trataera

Ikasle bakoitza garapenaren une jakin batean aurkitzen da. Hortik abiatuta egingo die aurre ezaguera berriei.. Erritmoak ez dira berdinak, eta ikasle bakoitzak bere behar pedagogikoak ditu; hortaz, eguneroko kontua da gelan aniztasuna aurkitzea. . Gure lana behar horiei guztiei erantzutea da. Horretarako, honako irizpide hauek lagungarri suertatuko zaizkigu:

- Taldeak egiterakoan, kontuan hartu malguak izan behar dutela bai antolakuntzari dagokionean, bai funtzionamenduari dagokionean . Hainbat estrategia aplikatuko ditugu talde barnean eta taldetik kanpo, talde txikietan edota talde handietan, ikasleak trebatzeko.
- Hezkuntza-premiak edozein direla eta, egokitzapenak egingo dira, eskolan denok lekua izan dezagun eta inor ez baztertzeke.

- Eskolak eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu ikasle bakoitzak dituen premiei erantzuteko, bai denbora gehiago eskainiz, bai materiala egokituz, bai bakoitzaren erritmoari egokituz...

Horrelako egoerak aurreikusi ezin direnez, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, bakoitzari dagokion erantzuna eman ahal izateko.

Garrantzizkoa da ekintza motibatzaileak proposatzea eta, ahal den neurrian, anitzak.

2.9. Diziplinartekotasuna

Argi ikusten da matematiketik hizkuntzarekin –eta, hizkuntza diogunean aho hizkuntzaz eta idatzizko hizkuntzaz ari gara– ezinbesteko lotura dutela, ematen ditugun/ dituzten adierazpen guztiak ulertu behar dituztelako.

Problema planteatzerakoan, aukera izango dugu beste arlo batzuekin erlazionatzeko: plastika, ingurunea...

Ikasleak talde-lanean asko arituko direnez, autonomia eta elkarlana landuko dituzte. Trebatuko ditugu iritzi propioak izaten, defendatzen eta besteenak errespetatzen .

Talde-lanean aritzeak antolamendu jakin bat eskatzen du. Aldez aurretik, planifikatu, ardurak banatu, prozedurak finkatu, lortu beharrekoa argi azaldu...

2.10. Baliabideak

Gelan dagoen materiala (papera, arkatza,...), irakasleak prestatutako zenbait ariketa eta haiek sortuko dituztenak. Horrez gain, bakoitzaren kalkulagailua.

3. Jarduerak

1. saioa

➤ Hiruko taldeetan banatuko ditugu ikasleak. Hasieran, errepasorako ariketa errazak (biderkaketarekin lotuak) eskainiko dizkiegu eta, ondoren zatiketa sinpleen bitartez ebatzi behar dituztenak.

- Zenbat arrautz dira 5 dozena?
- Zenbat egun dira 6 aste?
- Zenbat egun dira 6 hilabete? (hilabete bakoitzak, 30 egun da).
- Zenbat minutu dira 4 ordu?
- 12 bonboi ditugu eta kaxetan sartu behar ditugu; kaxa bakoitzean 4 sartzen baditugu, zenbat kaxa beharko ditugu?
- 18 lore erosi ditut etxea apaintzeko. Orain loreontzitan sartuko ditut eta bakoitzean 3 jarriko ditut; zenbat ontzi beharko ditut?
- Material gelatik Irenek 24 errotulagailu ekarri ditu. Irakasleak kartoizko 6 kaxa eman dizkio eta bakoitzean errotulagailu kopuru berdina egon behar duela esan dio. Zenbat errotulagailu jarriko ditu Irenek kaxa bakoitzean?
- Etxe batek 16 kristal ditu lau lehiotan banatuta, Zenbat kristal ditugu leiho bakoitzean?
- Zatikizuna: zatitzailea= zatidura
$$12 : 2 = 6$$
$$\text{Zatikizuna} = \text{zatitzailea} \times \text{zatidura}$$
$$12 = 6 \cdot 2$$

➤ Eragiketa horietan falta den osagaia bilatu :

- 50€ 10€ko biletetan banatu
- 20 bonbila 5 lanparatan banatu
- 42 arrautza dozena erdiko kaxetan banatu
- 18 ikasle 3ko taldeetan banatu.

- Arin erantzuteko galderak:
- :
- Zein zenbaki bider 2 da 12?
- Zein zenbaki bider 3 da 12?
- Zein zenbaki bider 5 da 15?
- Zein zenbaki bider 6 da 30?
- Zein zenbaki bider 3 da 30?
- Zein zenbaki bider 4 da 28?
- Zein zenbaki bider 7 da 35?
- Zein zenbaki bider 3 da 18?
- Zein zenbaki bider 8 da 24?
- Zein zenbaki bider 9 da 27?

- Zein zenbakiz biderkatu behar da 2 zenbakia, 12 lortzeko?

2. saioa

Zatikizuna : zatitzailea = zatidura

Zatikizuna= zatitzailea x zatidura

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2	4	6	8	10	12	14	16	18	20

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3	6	9	12	15	18	21	24	27	30

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4	8	12	16	20	24	28	32	36	40

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5	10	15	20	25	30	35	40	45	50

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6	12	18	24	30	36	42	48	54	60

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7	14	21	28	35	42	49	56	63	70

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
8	16	24	32	40	48	56	64	72	80

x	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9	18	27	36	45	54	63	72	81	90

➤ Bakarka egiteko ariketak

Aurreko txantilioetan oinarrituta, honako eragiketak egiten saiatuko dira. Ondoren, zuzenketa egiteko, ondoko kidearekin trukatu dute beraien lana.

$20 : 4 =$	$18 : 2 =$	$35 : 5$
$=$		
$15 : 5 =$	$42 : 6 =$	$24 :$
$4 =$		
$12 : 3 =$	$28 : 7 =$	$16 : 2$
$=$		
$21 : 7 =$	$24 : 6 =$	$32 : 8$
$=$		
$40 : 8 =$	$36 : 9 =$	$60 :$
$10 =$		
$45 : 9 =$	$21 : 3 =$	$27 : 3$

➤ Eragiketak egin eta zuzendu ostean hurrengo fasera pasatuko gara:

16/3. Hamasei ez dago 3ko taulan, baina gertuena 15 du. $15:3= 5$

18 ere 3ko taulan dago eta 16tik gertu baina handiagoa da, pasa egiten da.

$16-15=1$ Beraz, zatiduta= 5 eta hondarra 1.

23/ 3 Hogeita hiru ez dago 3ko taulan, baina gertuena baina pasatu gabe 21 da $23:3=7$

hondarra kalkulatzeko egingo dugu; $7 \times 3 = 21$; $23-21=2$.
Beraz, zatidura 7 da eta hondarra 2.

Zatikizuna = (zatitzailea x zatidura) + hondarra

- Binaka egiteko ariketak
 - 60 orrialderekin piloak egin ditut, eta bakoitzean 15 orrialde jarri ditut. Zenbat pilo egin ditut?
 - Koaderno batek 150 zentimo balio du. Baina zenbat balio du hori baino hiru aldiz gehiago balio duen koadernoak?
 - Kaxa batek 48 gaileta ditu, beste kaxa txikiago batzuetan sartuta. Kaxa txiki hauetako bakoitzak 6 gaileta ditu. Zenbat kaxa txiki daude?
 - Kaxa batean 48 gaileta daude eta ondokoan, herena dago. Zenbat gaileta daude bigarren kaxan?
 - Luisen autoa 60 km/h-ko abiaduran doa. Hiru ordutan aritzen bada, Zenbat km egingo ditu?
 - Denda batean esne litroa 85 zentimotan saltzen dute. Zenbat ordainduko dute 5 litro?
 - 10 ogi 6,50 € tan erosi ditugu. Zenbat balio du bakoitzak?
 - Gasoil litroa 0,839 zentimotan badago. Zenbat ordainduko dut 25 litro?

(Zenbait ariketa egin ahal izateko kalkulagailua eskura izango dute)

Zatiketa zehatza da hondarra zero duena.

92 jogurt ditugu, eta 4ko paketetan sartu nahi ditugu. Zenbat pakete beharko ditugu?

$$92 / 4 = \text{Lehenengo } 9 / 4 = 2 \text{ eta hondarra } 1$$
$$12 / 4 = 3$$

$$92 \text{ (zatikizuna) } / 4 \text{ (zatitzailea) } = 23 \text{ (zatidura) } \text{ eta hondarra } 0$$

Kalkula itzazu hurrengo zatiketak:

- a) 72: 2 b) 85: 5 c) 48: 3 d) 64: 4 e) 84: 6
- d) 91: 7

- 72 bonboi sartu behar dira 6ko kaxatan; zenbat kaxa beharko ditugu?
- 84 gailatekin 4ko paketeak egingo ditugu. Zenbat pakete behar dira?
- 45 goxoki 3 lagunentzako artean banatu egin behar dira. Zenbat dagozkio bakoitzari?
- 65 lore 5 loreontzitan sartu behar ditugu. Zenbat lore jarriko dugu bakoitzean?

Zatiketaren froga

$$\text{Zatikizuna} = (\text{zatitzailea} \times \text{zatidura}) + \text{hondarra}$$
$$63 / 5 = 12 \text{ eta hondarra } 3$$

Ongi egin dagoen jakiteko, froga egingo dugu:

$$63 = (12 \times 5) + 3$$

-

- Egin eta frogatu zatiketa hauek (binaka):

- a) 48: 3 b) 95:6 c) 92: 4 d) 73: 2 e)
81:7
f) 67: 5 g) 972: 6 h) 819: 5 i) 7329:2 j)
543:3

- Sei botilako zenbat pakete egin daitezke 3.144 ur botilarekin?
- 857 litro sartu nahi ditugu 5 litroko ontzietan. Zenbat beharko dira?
- Anderrek kromoak banatu ditu bere 5 lagunaren artean. 16na tokatu zaie eta 4 soberan geratu dira. Zenbat kromo banatu ditu?
- Anek 150 pegatina banatu ditu bere 8 lagunaren artean, zenbat tokatu zaio bakoitzari? Zenbat sobratu dira?
- Bost kaxa ditut eta guztien artean 650 gr pisatzen dute. Zenbatekoa da bakoitzaren pisua?

➤ Egin eta frogatu honako ariketak hauek:

- a) $480 : 5$ b) $178 : 3$ c) $1773 : 6$ d) $5079 : 8$ e) $219 : 9$
f) $379 : 4$.

4. saioa

- **Zatiduran zeroak ipini behar direnean**

$165 / 8 =$ $1 / 8$ ezin dugu hartu zatikizuna zatitzailea baino txikiago delako. Lehenengo 2 zifrak hartu behar ditugu, hau da 16
 $16 / 8$ -k, emaitza zehatza du : 2 eta hondarra zero da.
Hurrengo zenbakia jaitsiko dugu, alegia $5 / 8$ eta zatikizuna txikiagoa denez, ,emaitza zero da.
 $165 / 8 = 20$ eta hondarra 5.

Zatikizunean aurkitu dugun zenbakia (5) zatitzailea (8) baino txikiagoa da; hala ere, zatiduran zero ipini behar dugu derrigor

➤ Egin hurrengo ariketak (binaka):

- a) $212 : 3$ b) $483 : 6$ c) $355 : 7$ d) $304 : 5$ e) $181 : 2$ f)
 $367 : 9$

• **Zatiduraren erdian zeroak daudenean**

$630 / 6$ Lehenengo zifra hartzen da, $6 / 6$. Eraitza 1 da eta hondarra 0

Bigarren zifra hartu eta $3 / 6$, ezin da egin, zatikizuna (3) zatitzailea (6) baino txikiagoa delako. Orduan, 0 jarri zatiduran, Baina zatiketa ez da amaitu, azken zifra jaitziko dugu. $30 : 6$.

$30 / 6$, zehatza da, 5 ematen du.

$$630 / 6 = 105$$

➤ .Egin itzazue hurrengo zatiketak : (binaka)

- a) $629 : 3$ b) $456 : 9$ c) $5435 : 6$ d) $6475 : 8$ e) $1278 : 6$ f) $837 : 4$

- g) $739 : 7$ h) $4008 : 5$

- Tren batek hiru ordutan 321 km egin ditu. Zenbat kilometro egin du ordu bakoitzean?.

• **Zatitzaileak bi zifra dituenean**

$728 : 14$ Zatitzailean bi zifra daudenez, zatikizunetik ere, gutxienez bi zifra hartzen ditugu

$$4 \times 14 = 56$$

zatiduran 5

gertuena eta pasatu gabe 5a da ; beraz,

$$5 \times 14 = 70$$

ipini eta hondarra, $72 - 70 = 2$

$$28 : 14 = 2$$

$$6 \times 14 = 84$$

$$728 / 14 = 52 \text{ eta hondarra } 0$$

Zatikizunetik ezin dugu orain lehenengo zifra bakarrik hartu, zatitzailea baino txikiago delako. Zatitzailea ezin da banatu, bi zifrak batera hartu behar dira. Lehengo bi zifra hartuko ditugu.

5a aukeratzen dugu, 4arekin oso urrun gelditzen gara eta 6ekin pasatu egiten gara.

72ri (5×14) ren emaitza kendu egiten diogu, hau da, $72 - 70 = 2$. Baina oraindik beste zenbakia gelditzen zaigu zatikizunean, 8. Hori ere jaitsi, eta prozesua errepikatu behar da.

➤ Ebatzi: ondorengo zatiketak (banaka)

a) 665: 21 b) 2864: 15 c) 895: 42 d) 640: 32

- Elefante batek oso bizi luzea izan dezake. Batzuk 972 hilabete bizi izan dira. Zenbat urte osatzen dituzte hilabete horiek?
- Maialenek 410 bolatxo urdin eta 540 hori ditu. 25 bolatxodun lepokoak egin nahi ditu. Zenbat lepoko egin ditzake kolore bakoitzarekin?. Zenbat sobratu zaizkio kasu bakoitzean?.
- $\frac{1}{2}$. Erdia. Zenbaki baten erdia jakiteko, zenbaki hori zati bi egin behar da.
- $\frac{1}{3}$. Herena. Zenbaki baten herena jakiteko, zenbaki hori zati hiru egin behar da.
- $\frac{1}{4}$. Laurdena. Zenbaki baten laurdena jakiteko, zenbaki hori zati lau egin behar da.

➤ Kalkulatu zenbaki hauen erdia, herena eta laurdena:

a) 48 b) 96 c) 228 d) 156 e) 516

➤ Kirol denda batean hiru talde ezberdineko 576 txandal daude:

- a) Laurdena, Atletikekoak dira
- b) Herena, Errealekoak dira
- c) Besteak, Alaves taldekoak dira.

Zenbat txandal dago ekipo bakoitzeko?

5. saioa

Ariketak:

- 1- Ur-biltegi batean 700 litro daude. Ontzika husten hasi dira eta dagoeneko 15 litroko 22 ontzi atera dituzte. Gelditzen den ura 5 litroko ontzietan banatuko dute. Zenbat ontzi bete dituzte?
- Auto batek 150 km egin ditu bi ordutan; zenbat km egingo ditu 7 ordutan?
- Egin zatiketa hauek:
a) $538 : 5$ b) $2691 : 15$ c) $915 : 4$ d) $6322 : 12$ e) $636 : 7$

ii) Bete ezazu taula hau kalkulagailua erabiliz

Zatikizuna	zatitzailea	zatidura	hondarra
562		46	4
	28	32	4
204		6	0
	6	34	3

- Freskagarri botila kaxatan sartzen ari gara. Kaxa bakoitzean 12 botila sartuko ditugu. 336 botila baditugu, zenbat kaxatan sar ditzakegu guztiak?. Eta 224 baditugu?
- Gure eskolan txango bat egin behar dugu, eta ikasle eta irakasleak kontuan hartuta 327 pertsona goaz. Autobus bakoitzean 55 pertsona sartzen dira, Zenbat autobus behar ditugu?.
- Zenbat dozena osatuko ditugu 540 arrautzekin?.

➤ Zatiketa bakoitzeko hiru emaitza dituzu. Biribildu egokiena eragiketarik egin gabe:

a) 693 : 99	* 84	* 7	* 4
b) 300 : 25	* 12	* 10	* 2

➤ 3ko taldeetan jarriko ditugu ikasleak. Talde bakoitzak bi buruketa asmatuko ditu, eta gainerako taldeetan daudenek ebatziko dituzte.

Osatu taula:

Zatikizuna	zatitzailea	zatidura	hondarra
734	3		
	9	32	5
835	5		
	4	184	0

- Zortzi laranja-kaxak 120 kilo pisatzen dute. Zenbat pisatzen du bakoitzak?
- 12 kilo laranja ditugu eta denera 48 ale dira. Zenbat laranja ale sartzen dira kilo batean?
- Zatiketa batean hondarra 7 bada, eta zatitzailea 3, ongi egina dago?. Zergatik?
- Hegazkinerako hiru txartel erosi ditugu eta 504 € ordaindu ditugu. Zenbatekoa da bilete bakoitzaren prezioa?

Bibliografia

- Elkar, Baga –Biga
- Ibaizabal, Matemática E.P. 4º
- Vivens –Vives, Matematica 4º primaria
- Proyecto Cifras Matemáticas para la E.P.
- Euskal currículum berria

